

## ARAZO EGOERA

# PAISAIARI BEGIRA

**ARLOA:** 2.MULTZOA. Gure mundua eta haren kontserbazioa

**MAILA:** LHko 1. zikloa

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

Orokorrean ez dugu gure egunerokoan ikusten dugun paisaia arretaz begiratzeko ohiturarik. Paisaia aztertzeak gure ingurunean garatzen diren hainbat jardueren inguruko informazio esanguratsua eskaintzen du eta gure mundua hobeto ulertzen lagundu diezaguke.

Paisaiari dagokionean, aspektu ugari landu daitezke: paisaia mota (kostaldekoa, lautadakoa, mendikoa...), paisaiako elementuak (mendiak, ibaiak, itsasoa, errepideak, eraikinak...), orografiaren ezaugarriak (malda handiak, eremu lauak...), klimaren eragina... Horrez gain, gure lurraldean nagusi diren jarduera ezberdinak (industria, abeltzaintza, basogintza...) eta hauen hedadura eta eraginak aztertzeak aukera eskaintzen du.

## ARAZOA

Gure eguneroko bizitzan paisaia beti presente dago: etengabe ikusten dugu baina oso gutxitan begiratzen diogu. Eta zuk, ezagutzen al duzu zure herriko paisaia?

Ikastetxetik irten eta inguruko paisaia arretaz begiratzuz, honek eskaintzen duen informazioa bildu eta aztertzen saiatu.

## XEDEA

Paisaia behatu eta aztertzeko jardueren bidez honen elementu eta ezaugarri nagusiak identifikatzeaz gain, hauek giza jarduerekin duten loturaz eta horien ondorioez jabetzea.

## HELBURUAK

- Paisaiak dituen elementu eta ezaugarri ezberdinak identifikatzea.
- Elementu nahiz ezaugarri horien jatorria eta eraginak aztertzea.
- Paisaiak gure eguneroko bizitzan duen eraginaz jabetzea.
- Paisaiaren ondarea errekonozitzea.
- Paisaia eta bertan bizi diren ekosistema naturalak eta izaki bizidunak errespetatu eta zaintzeko beharraz jabetzea.
- Paisaian identifikatu daitezken eragin negatiboak hobetzeko proposamenak egitea.
- Aire librean behaketa eta landa-lanak eginez, ikasle arteko ikasketa kooperatiboa garatzea.

## ATAZA

Herri, eskualde nahiz lurralde mailan irteerak egin eta paisaia ezberdinak aztertu. Paisaia jakin baten elementu eta ezaugarrien eragile edo jatorriak identifikatzeaz gain, hauen arteko konparaketak eta paisaia hauek hobetzeko proposamenak egin.

## JARRAIBIDEAK

- Herrian, eskualdean edo lurralde mailako irteera batzuk egin eta **paisaia ezberdinak behatu**. Interesgarria izan daiteke ezaugarri ezberdinetako paisaiak aztertzea: eremu urbanoen inguruan, mendi aldekoak, lautadan edota kosta inguruak, esaterako.
- Paisaiako **elementu edo eragile orokorrak** aztertu:
  - Erliebea: mendiak eta hauen maldak, lautadak, haranak...
  - Hidrografia: ibaiak, errekek, urtegiak...
  - Klima: klimaren eragina paisaian.
- Paisaiako **elementu eta ekosistemak** identifikatu eta hauen ezaugarri nagusiak definitzen saiatu (eremu txikiak/handiak, lauak/maldatsuak, irisgarritasun ona duten edo ez...):
  - Eraikinak
  - Errepideak
  - Zuhaitz landaketak
  - Zelai eta larreak
  - Nekazaritzako laboreak
  - Basoak
  - Errekak
  - Harkaiztiak
  - ...
- Paisaiak gaur egun dituen ezaugarriak behatu ondoren, **gizakiak bertan eragindako eraldaketez** jabetu. EAEn modu naturalean ia lurralde osoa basoz estalita egon beharko litzateke, ohartu gizakiak aldaketa handiak eragin dituela paisaia mailan (zuhaitz landaketak, nekazaritza, abeltzaintza, urbanizazioa,...).
- **Giza jarduerak** eragindako eraldaketa horren **ondorioak** identifikatzen saiatu, adibidez:

## Naturan hezten

- Artifizializatutako guneetan (eremu urbanoak, industrialak, garraiorako azpiegiturak) lurzoruak zigilatuta daude eta oso zaila (edo ezinezkoa) da horiek berreskuratzea.
- Ibaiak kanalizatuta daude eta ez dago ibar basorik, beraz ekosistema hauek erabat degradatuta daude eta habitat hauei loturiko bizidunak egoera txarrean egongo dira.
- Makinek malda handietan higadura eragiten dute eta luiziak sortzen dira.
- ...
- Paisaiaren **edertasun maila** ebaluatu: ez zait batere gustatzen, erdizka, gustatzen zait, asko gustatzen zait. Identifikatu ea zein diren ikasleek positiboki edo negatiboki baloratzen dituzten elementuak, adibidez: Gustoko dituzte mendiak, basoak, erreka... Aldiz, industrialdeak, errepideak eta zuhaitzen osoko mozketak ez zaizkie gustatzen.
- Paisaia **hobetzeko proposamenak** luzatu zure herriko udalari proposamen dokumentu baten bidez (alkateari, nekazaritza eta ingurumen zinegotziari, lurraldeko agintariari, ...):
  - Herri eta hiriguneetan eremu berdeak areagotzea.
  - Lurraldearen artifizializazioa mugatzea.
  - Paisaian eremu naturalen hedadura handiagotzea.
  - ...